

Bizi-itxaropena ia 7 urte igo da Euskal AEn 25 urtean

Ugalkortasunak baxua izaten jarraitzen du eta bigarren ordenatik gorako seme-alabak ia desagertu egin dira

Bizi itxaropena 6,8 urte igo da bi sexuetarako Euskal AEn 1976az geroztik, Eustatek adierazle demografikoetan eskainitako datuen arabera. Bai gizonezkoen artean, bai emakumezkoen artean, bizi-itxaropena etengabe igo da Euskal AEn.

Gizonezkoek urteko 4,10 hilabeteko bizialdia irabazi dute. 1976an, bizi-itxaropena 69,6 urtekoa zen; eta 2001ean, 76,4koa. Emakumeek urteko 4,13 hilabete irabazi dute, eta 83,7 urtera iritsi dira. Bi sexuetako bizi-itxaropenen arteko aldea 7,3 urtera jaitsi da, duela 10 urte izandako maximoaz, hots 8,7 urte, geroztik. Datu hauei esker Euskal AE herrialde garatuen buru da, bereziki emakumeen kasuan, Europar Batasuneko 25 herrialdeen, Kanadaren eta AEBen gainetik; Japoniak baino ez du gainditzen.

Tumoreak dira bizi-itxaropenaren aurkako mehatxu nagusia; tumoreak erabat desagerraraziko balira, gizonezkoak 4 urte gehiago biziko lirateke eta emakumeak hiru gehiago. Bestalde, leunagoak dira heriotzaz kanpoko kauek eragindako kalteak; urtebete baino pixka bat gehiago kentzen die gizonezkoei eta 5 hilabete emakumezkoei. Zirkulazio-istripuetan bakarrik (horiek kanpoko kausen artean sartzen dira), gizonezkoek 5 hilabete galdu zuten eta emakumezkoek 2 hilabete besterik ez.

Ugalkortasunak baxua izaten jarraitzen du

Erkidegoko ugalkortasuna baxua da inguruko herrialdeekin alderatuz gero. Seme-alaben batez bestekoa 2000. urtean 1,03 izan zen, 1975eko 2,7etatik eta belaunaldiak ordezkatzeko behar diren 2,1etatik oso urrun. Bizkaiak izan zuen indize baxuena (0,98), eta Gipuzkoan emakumea 1,12 seme-alaba izan ziren. Arabar emakumeek 1,05 seme-alaba dituzte.

Datu horietan oinarrituz, aurrez ikus dezakegu emakume batek 0,6 lehenengo seme-alaba izango dituela, eta horrek emakumeen erdiak baino gutxiagok seme-alabarik ez duela izango esan nahi du. Bigarren seme-alaben indizea 0,4 da, eta hamar emakumetik batek baino gutxiagok izango ditu hirugarren seme-alabak edo goragokoak. Ildo horretan, bi edo hiru ondorengoren ugalkortasuna % 90 jaitsi da, 1975. urtearen aldean.

Euskadiko emakumeen ugalkortasunaren beste ezaugarrietako bat da jaiotzak aldi motz batean kontzentratuta dagoela. Batez besteko erditze-adina parekoa da hiru lurraldeetan, 32 urteen gainetik; hau da, 1975ean baino 3,6 urte geroago, eta adin horren inguruan jaiotza kontzentrazio handia gertatzen da.

Gainera, lehenengo eta bigarren haurren artean 2 urte eta erdiko aldia igarotzen uzten da, eta bigarrenaren eta hirugarrenaren artean urte eta erdi baino gutxiagokoa.

Ezkontza-kopurua pixka bat indarberritu

Lehenengo ezkontzek gizonezkoen % 56,1 eta emakumezkoen % 59,5 hartuko dituzte; duela bost urte izandako indizeekiko hazkunde txiki bat izan da, orduan % 52,5 eta % 54,7 hartu baitzituzten hurrenez hurren. Datu horiek pertsonen % 40 baino gehiago ezkongabe geratuko direla ere adierazten dute. Egoera hori duela hogeita bost urtekoetik oso urrun dago, izan ere orduan pertsonen ia % 100 ezkontzen ziren.

Ezkontza-tasak aztertuz gero, ezkontzeko adinak atzeratzen jarraitzen duela ageri da. Batez besteko adina, lehen ezkontzan, 31,8 da gizonezkoengan (1976an baino 5,2 urte gehiago) eta 29,6 emakumezkoengan (1976an baino 5,5 urte gehiago). Ugalkortasunarekin gertatzen den bezala, ezkontzak adin jakin batzuetan nabarmen kontzentratzen dira. 28 eta 34 urte artean gizonezkoen % 62,3 ezkontzen dira; eta 27 eta 32 urte artean, emakumezkoen % 65,5.

Batez beste, Euskal AEko biztanle batek bi aldiz emigratzen du bizitzan zehar

Probintziaren barruko emigrazioa da ohikoena; hau da, irteerako eta helmugako udalerriak probintzia berean daude. Hala gertatzen da migrazioen erdian baino gehiagotan (gizonezkoen kasuan, guztizko 2,1etik, 1,2an; emakumezkoen kasuan, 2tik, 1,1ean). Aldiz, biztanle bati, batez beste, Euskal AEtik kanporako 0,8 migrazio egokitzen zaio (emigrazio guztien % 36,5). Euskal AEko probintzien arteko migrazioak % 8 baizik ez dira.

Probintziak, alde handia dago Bizkaiaren eta Gipuzkoaren, batetik, eta, bestetik, Arabaren artean. Araban migrazioak 1,4 dira gizonezko zein emakumezkoen kasuan; Gipuzkoan, ordea, 1,8 dira gizonezkoenak, eta 1,9 emakumezkoenak, eta Bizkaian 2 migrazio bi sexuen kasuan. Alde horien kausa probintzia barruko mugikortasuna da, Gipuzkoan mota horretako mugimenduak 1,1 direlako, eta Bizkaian, 1,2 baino gehiago. Araban, aldiz, ozta-ozta iristen da 0,5 mugimendutara. Gainerako mugikortasun-motetan, indizeak nahiko antzekoak dira.

Bestalde, emigrazioaren distantzia handitu ahala, adinak ere gora egiten du. Hala, batez beste, Euskal EAKo hiru probintzien barruan mugitzen diren gizonezkoak gazteenak dira (34,2 urte), eta emakume gazteenak aldatzen dira etxetik udalerri barruan (35,0 urte). Adin handienekoak dira Euskal AEko probintzia batetik bestera migratzen duten gizonezkoak (37,7 urte) eta Euskal EAtik kanpo joaten diren emakumeak (36,4 urte).

Udalerri barruko mugimenduei dagokienez, mugikortasun handienekoak Gipuzkoako eta Bizkaiko emakumezkoak dira, ia 3 mugimendu baitituzte. Eta, bestalde, mugikortasun txikienekoak Arabako eta Bizkaiko gizonezkoak dira: 1,6 mugimendu.

Migrazioak eta etxe-aldaketak batuz gero, Euskal EAKo biztanle bat, batez beste, bost aldiz aldatuko da etxetik bizitzan zehar, bere udalerri barruan nahiz kanpora.

Euskal AEko adierazle demografikoak, 2000/2001.

Hilkortasunaren adierazleak	Euskal AE	
	Gizonezkoak	Emakumezkoak
Bizi-itxaropena, jaiotzean	76,4 urte	83,7 urte
Bizi-itxaropena, kanpo-kausarik gabe	76,7 urte	84,2 urte
Bizi-itxaropena, zirkulazio-istripurik gabe	76,9 urte	83,9 urte
Bizi-itxaropena, tumorarik gabe	81,1 urte	86,8 urte

Ugalkortasunaren adierazleak	Euskal AE	
	Emakumezkoak	
Batez besteko seme-alaba kopurua, emakumeko	1,0	
Lehen seme-alabak	0,6	
Bigarren seme-alabak	0,4	
Hirugarrenak edo goragokoak	0,1	
Batez besteko adina, erditzean	32,2 urte	
Lehen umea	31,0 urte	
Bigarren umea	33,6 urte	
Hirugarrena edo goragokoa	34,8 urte	

Ezkontza-tasen adierazleak	Euskal AE	
	Gizonezkoak	Emakumezkoak
Lehen ezkontzen batez besteko kopurua, ehun pertsonako	56,1	59,5
Batez besteko adina, lehen ezkontzan	31,8 urte	29,6 urte

Emigrazioaren adierazleak	Euskal AE	
	Gizonezkoak	Emakumezkoak
Emigrazioen batez besteko kopurua	2,1	2,0
Euskal AEtik kanpora doazenak	0,8	0,7
Beste lurralde batera doazenak	0,2	0,2
Lurralde bereko beste udalerri batera doazenak	1,1	1,1
Udalerri barruko bizileku-aldaketan batez besteko kopurua	2,8	2,9
Batez besteko adina, emigrazioan, guztira	36,5 urte	35,1 urte
Euskal AEtik kanpora doazenak	37,4 urte	36,4 urte
Lurralde bereko beste udalerri batera doazenak	37,7 urte	36,3 urte
Beste lurralde batera doazenak	34,2 urte	35,7 urte
Batez besteko adina, bizilekuz aldatzean	34,7 urte	35,0 urte

Iturria: EUSTAT

Argibide gehiagorako:

Euskal Estatistika-Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastian kalea, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel.: +34-945 017 500 Faxa: +34-945 017 501 E-maila: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Martín González Hernández

Tel.: +34-945 017 549. Faxa: +34-945 017 501

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es